



## Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea 2020ko uztailaren 27ko saioko agiria

**Data:** 2020-07-27

**Hasiera ordua:** 9:30    **Amaiera ordua:** 11:00

**Batzordeko kideak:**

<b>Muxika Sarasketa, Joseba</b> Herritarren Partaidetzako zuzendari nagusia	<b>Crespo Rico, Miguel Angel</b> Lurralde antolaketako zuzendari nagusia
<b>Telleria Etxeberria, Maria Jose</b> Kulturako zuzendari nagusiak Joseba Muxika Sarasketaren esku utzi ditu bere ordezkari eta botoa.	<b>Corchon Alvarez, Jose Enrique</b> Finantza eta aurrekontuko zuzendari nagusia
<b>Manotas Rueda, Goizeder</b> Berrikuntzako eta eraldaketako zuzendari nagusiak Joseba Muxika Sarasketaren esku utzi ditu bere ordezkari eta botoa.	<b>Uribetxeberria Barrena, Mikel</b> Kudeaketa eta plangintzako zuzendari nagusiak Joseba Muxika Sarasketaren esku utzi ditu bere ordezkari eta botoa.
<b>Azpiroz Otegui, Jon Ander</b> Landa udalerrien garapenerako zuzendari nagusia	<b>Rodrigo Montalvo, Txaro</b> Mendekotasunaren eta desgaitasunaren arretako zuzendari nagusiak Joseba Muxika Sarasketaren esku utzi ditu bere ordezkari eta botoa.
<b>Pedreira Lanchas, Monica</b> Ingurumeneko zuzendari nagusia	<b>Zurutuza Mujika, Sebastian</b> Estrategiako zuzendari nagusia

### Landutako gaia

**2019-2023 Legegintzaldiko Partaidetza Programaren aurkezpena, azterketa eta onarpen proposamena.**

Herritarren Partaidetzako 5/2018 Foru Arauak, bere 36. Artikuluan arautzen du Foru Batzordeak legegintzaldirako Partaidetza Programaren aurreproiektua egingo duela, eta hilabeteko epean herritarren eta



erakundeen ekarpenak jaso ondoren, proiektua onartu eta Foru Aldundiari proposatuko diola onartu dezan. Diputatu Nagusiak agintaldiko lehen urtean zehar, Batzar Nagusietan aurkeztu beharko du Partaidetza Programa.

## **Partaidetza Programaren aurkezpena**

Hasteko, Joseba Muxika batzordeburuak 2019-2023 legegintzaldirako Partaidetza Programa aurkeztu du, dituen helburuak eta egitura.

Partaidetza Programa lurraldean herritarren Partaidetza sustatzeko ekintza eta estrategiak hedatzen dituen gida da. Bere helburua Herritarrekin harreman irekia finkatzea, eta parte hartze nahiz komunikazio bide berriak irekitzea da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoak prestatu eta ebaluatzeko garaian herritarren parte hartzea ohikotasunez txertatuz.

Helburu estrategiko hori helburu operatibo hauen bidez zabalduko da:

- Gobernantza ireki eta kolaboratiboaren eredua garatzea eta sustatzea.
- Ezagutza sortzeko jarduerak diseinatu eta egikaritzea.
- Parte hartzeko bideak zabaltzeko tresna eta ekipamendu digitalak sortzea.
- Herritarren parte hartzea bermatu eta sustatzeko behar diren organo, egitura eta arauak ezarri eta sustatzea.

Horretarako, helburu horiek lortzeko 4 ildo estrategiko zehazten dira, 12 eremuetan banatuta eta guztira 49 ekintzekin. Ondorengoak dira zehazten diren 4 ildo estrategikoak:

- 1-.Gobernantza ireki eta kolaboratiboko eredua garatu eta bultzatu.
- 2-.Ezagutza sortzeko jarduerak diseinatu eta gauzatu.
- 3-.Partaidetza bideak zabaltzeko tresna eta ekipamendu digitalak sortu.
- 4-.Herritarren partaidetza bermatu eta sustatzeko beharrezkoak diren organo, egitura eta araudiak ezarri eta bultzatu.



## Partaidetza Programaren onarpena

Foru Batzordeko kideek 2019-2023 legegintzaldiko Partaidetza Programa aztertu ondoren, GFAREN plangintza estrategikoarekin koherentea eta dokumentu osatua dela adierazi dute, hartzaileak, adierazleak, ekintzen klusterizazioa, arriskuen mapa eta bestelako aldagai ezberdinak jasotzen baititu bere jarraipena egiteko. Hala ere, irailetik aurrera izango den egoerak eta ziurgabetasunak Partaidetza Programan izan dezaketen eraginak kezkatzen dituela azaldu dute. Adierazpen horien ondoren, Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiak prestatuturiko aurreproiektua ontzat eman dute aho batez. Beraz, Foru Batzordeak onartu du 2019-2023 legegintzaldirako Partaidetza Programa.

## Hurrengo urratsak

2019-2023 legegintzaldiko Partaidetza Programarekin egingo diren hurrengo urratsak honakoak izango dira:

- Diputatuen Kontseiluan aurkeztuko da irailaren 8an bere onarpenerako.
- Batzar nagusietan aurkeztuko da irailean zehar.
- Lurraldeko udalei aurkeztuko zaie.
- Partaidetzarako Foru erregistroan izena emandako elkarteei emango zaie berri
- Hedabideei emango zaie honen berri.
- GFAko webgune eta egoitza elektronikoan publiko egingo da.